

TRIKUARENA

*Esnatu da trikua habi hosto lehorrez egindakoa,
eta dakizkien hitz guztiak ekartzen ditu gogora;
gutxi gora behera, aditzak barne, hogeitazazpi hitz.*

*Eta gero pentsatzen du: Amaitu da negua,
Ni trikua naiz, Bi sapelaits gora dabilta hegaletan;
Marraskilo, Zizare, Zomorro, Armiarma, Igel,
Zein putzu edo zulotan izkutatzen zarete?
Hor dago erreka, Hau da nire erresuma, Goseak nago.*

*Eta berriro dio: Hau da nire erresuma, Goseak nago,
Marraskilo, Zizare, Zomorro, Armiarma, Igel,
Zein putzu edo zulotan izkutatzen zarete?*

*Ordea bertan gelditzen da bera ere hosto lehor balitz,
artean ez baita eguerdia baino, lege zahar batek
galerazi egiten baitizkio eguzkia, zerua era sapelaitsak.*

*Baina gaua dator, joan dira sapelaitsak, eta trikuak,
Marraskilo, Zizare, Zomorro, Armiarma, Igel,
Erreka utzi eta mendiaren pendizari ekiten dio,
seguru bere arantzetaz nola egon baitzitekeen
Gerlari bat bere eskutuaz, Espartan edo Corinton;*

*Eta bapatean, zeharkatu egiten du
belardiaren eta kamio berriaren arteko muga,
Zure eta nire denboran sartzen da pauso bakar batez;
Eta nola bere hiztegi unibertsa ez den
azkeneko zazpi mila urteotan berritu,
ez ditu ezagutzen gure automobilaren argiak,
ez da ohartzen bere heriotzaren hurbiltasunaz ere.*

Bernardo Atxaga

EL ERIZO

El erizo despierta al fin en su nido de hojas secas, / y acuden a su memoria todas las palabras de su lengua, / que, contando los verbos, son poco más o menos veintisiete. // Luego piensa: El invierno ha terminado, / Soy un erizo, Dos águilas vuelan sobre mí, / Rana, Caracol, Araña, Gusano, Insecto, / ¿En qué parte de la montaña os escondéis? / Ahí está el río, Es mi territorio, Tengo hambre. // Y vuelve a pensar: Es mi territorio, Tengo hambre, / Rana, Caracol, Araña, Gusano, Insecto, / ¿En qué parte de la montaña os escondéis? // Sin embargo, permanece quieto, como una hoja seca más, / porque aún es mediodía, y una antigua ley / le prohíbe las águilas, el sol y los cielos azules. // Pero anochece, desaparecen las águilas, y el erizo, / Rana, Caracol, Araña, Gusano, Insecto, / Desecha el río y sube por la falda de la montaña, / tan seguro de sus púas como pudo estarlo / un guerrero de su escudo, en Esparta o en Corinto; // Y de pronto atraviesa el límite, la línea / que separa la tierra y la hierba de la nueva carretera, / de un solo paso entra en tu tiempo y el mío; / Y como su diccionario universal / no ha sido corregido ni aumentado / en estos últimos siete mil años, / no reconoce las luces de nuestro automóvil, / y ni siquiera se da cuenta de que va a morir.